



Deialdia	Convocatoria
1. Xedea	1. Objeto
Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauen berri ematea: larrialdi-egoeretan proiektu eta ekintza humanitario puntualak egiteko dirulaguntzak lehia bidezko konkurrentziaren arabera.	El objeto de la presente convocatoria es dar a conocer las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para la ejecución de proyectos y acciones humanitarias de carácter puntual en situaciones de emergencia.
2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida	2. Crédito y partida presupuestaria a los que se imputa la subvención
Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa zortzi mila eta bostehun (8.500 euro) Tolosako Udalaren Aurrekontu Aurrekontu Orokorren partida hauen kargura: - 0500.481.01.231.00(2024)tik 1.000 €, baldin eta xede den herrialdea ez badago garapen-bidean. - 0500.491.01.231.00(2024)tik 7.500 €, baldin eta proiektuaren xedea garapen-bidean dagoen herrialderen bat bada.	La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de ocho mil quinientos euros (8.500,00 euros) con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Tolosa: - 0500.491.01.231.00(2024): 1.000 €, siempre que el proyecto se destine a un país que no se considera en vías de desarrollo. - 0500.491.01.231.00(2024): 7.500 €, siempre que el proyecto se destine a un país en vías de desarrollo.
3. Pertsona/erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua	3. Requisitos que deben reunir las personas/entidades beneficiarias y forma de acreditarlos
Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 4. artikuluan xedaturikoa izango da.	Será lo dispuesto en el artículo 4 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria.
4. Eskaerak aurkezteko epea	4. Plazo de presentación
Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunetik hasita.	El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días naturales a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa	5. Documentación que acompañar a la solicitud



Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 9. artikuluan xedaturikoa izango da.	Será lo dispuesto en el artículo 9 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria.
6. Balorazio irizpideak	6. Criterios de valoración
Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 12. artikuluan xedaturikoa izango da.	Será lo dispuesto en el artículo 12 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria.
7. Proiektuak egikaritzeko epea	7. Plazo de ejecución de los proyectos
Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2024ko urtarrilaren 1etik 2025ko ekainaren 30ra bitartean egingo dira.	Las actuaciones objeto de subvención se realizarán entre el 1 de enero y el 30 de junio de 2025.
8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak	8. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento
Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa. Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda. Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan. Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean: - Kontu-hartzailea edo teknikaria. - Saileko teknikaria. - Saileko zinegotzia. - Idazkaritza Saileko AOT bat. Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea	La instrucción del procedimiento será promovida por el Área Servicios Sociales y Salud. Corresponde a dicha área la valoración de las solicitudes mediante la emisión del correspondiente informe técnico. La propuesta de la concesión se elevará a la Comisión de Valoración para emitir su correspondiente informe. Dicha Comisión de Valoración estará compuesta por los/las siguientes integrantes, garantizándose una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su composición, salvo justificación en contrario: - El/La Interventor/a o el técnico/a. - El/La técnico del área. - El/La concejal/a del área. - Un/a TAG del Área de Secretaría. El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, formulará la propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a los interesados en la forma que establezca la convocatoria, y se concederá un



emango zaie alegazioak aurkezteko. Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak ebatz dezan.	plazo de 10 días para presentar alegaciones. Posteriormente, para su resolución se dará traslado a Alcaldía, sin perjuicio de las delegaciones que pudiese efectuar.
9. Ebazteko eta jakinarazteko epea	9. Plazo de notificación y resolución
Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.	El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. La resolución definitiva será notificada a las personas-entidades interesadas.
10. Ebazpenaren jakinarazpena	10. Notificación de la resolución
Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.	A la persona-entidad interesada se le notificará resolución.
11. Dirulaguntza aldatzea	11. Modificación de la subvención
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarri orokorren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 18 de las bases generales que se publican en esta convocatoria.
12. Helegiteen araubidea	12. Régimen de recursos
Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke: Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera. Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren	La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos: Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse



erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.	contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.
Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.	Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier momento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.